

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Iturriak herriko jendea edan du

Iturriak herriko jendea edan du. Inor konturatu gabe. Asperturik omen zegoen ura ematen, izerdiak garbitzen eta umeen globoak betetzen. Ehun bat pertsona irentsi omen ditu. Herriko jendea aztoratuta dago.

Inor gehiago ez da ausartzen iturrira joaten.

Beno, alkateak municipalak bidali ditu zer gertatu den ikertzera, baina aholku zorrotz batekin: iturritik hamabost metrora geld! Ez gehiago hurbildu!

Gero, jende gehiago azaldu da jakin-minez, baina municipalak ez diete utzi iturrira hurreztatzen.

– Bai gauza arraroa! –dio batek.

– Umeen kontua izango da –beste batek.

– Ez dakizue ehun lagun edan dituela iturriak, ala! –eten dio, zakar, municipalak.

Iturriak, bitartean, ura ematen jarraitzen du. Baina munipa gazteena konturatu da aurrena:

– Begira, begira, ur zikina ateratzen hasi da!

Irentsitako biztanle guztiek zikin ikusi dute euren arima ur gardenaren ispiluan.

– Garbi gaitzazu, iturri maitea, eta aratz jaregin gaitzazu, inbidia, gorroto, handiuste eta zuhurkeria guztietatik askatuta –erregutu dio aitona buruzuri batek.

– Gu ere bai... gu ere bai... –oihar-tzun antzeko bat entzun du iturriak.

– Nire izen ona eta ospea galdu beharko ditut eginkizun horretan, ur zikina eta kiratsa



DANI BLANCO

besterik ez baita irtengo datozen hogeita lau orduetan.

– Hala ere, gure zikinak bota ondoren, berriro betiko iturri garbi bihurtuko zara eta gu zurekin jolastera etorriko gara egunero –agindu dio xalotasunez zortzi bat urteko umetxo batek.

Iturria errukitu egin da ume ahotsa entzutean eta hunkitu haren agindua jasotzean. Umeek ez dute maliziarik, baina hauek ere badute zer garbitua. Eta haiekin hasi da aurrena. Hasieran, pixkanaka zikindu da iturriko hura, baina jende helduagoa garbitzen hasi denean, iturriak nazka sentitu du: nolako zarakarra eta zornea botatzen duten pertsona apain eta dotore itxurako hauek! Kirats hau jasango duen ama-semerik ez dago munduan. Bere biltegiko urak azkarrago bildu ditu eta zentrifugazio lan izugarria egin behar izan du.

Kanpoan municipalak eta inguratutako jendea harriturik dago. Iturriak gero eta ur zikinagoa botatzen du, ustel usaina inguru guztira hedatuz.

– Goazen denok hemendik! –agindu du munipa zaharrenak.

Iturri ingurua hutsik geratu da. Hesi antzeko bat ere jarri dute, inork gaitz kutsakorrik harrapa ez dezan.

Hurrengo goizean, edandako guztiak isuri ditu iturriak garbi-garbi, lirain, begietatik distira berezia dariela, arimaren garbitasuna poro guztietatik barreiatzen zaielarik. ■

« Jende helduagoa garbitzen hasi denean, iturriak nazka sentitu du: nolako zarakarra eta zornea botatzen duten pertsona apain eta dotore itxurako hauek! »

TXANDAN

Joxerra Garzia



Errentagarritasuna kulturean, alegia. Prezioaren eta ordainetan

jasotzen denaren arteko erlazio egokia besterik ez da errentagarritasuna. Horrela esanda, ez dut uste inork zalantzan jarriko duenik formula hori. Komediak gero datoz, formula aplikatzen hasi eta prezioa eta ordainetan jasotzen dena zehazterakoan. Kulturaren alorrean behintzat, ez dira horiek kalkulu errazak.

Zein izan da, esaterako, Guggenheimen prezioa? Dirutan zenbat kostatu den ere ez dakit nik, baina ez dut uste dirutan bakarrik kalkulatu behar genukeenik museoaren prezioa. Egitasmoa sortu zenean kulturagintzan zihardutenei galdetu,

Errentagarritasuna

ea zenbat buruhauste, haserre eta itolarri kostatu zitzaizen titaniozko museo. Ordainetan, berriz, zer

eman digu Guggenheimek? Onura batzuk begi-bistakoak dira: Bilboren itxura-berritze miragarriaren ardatz izan da museo, ez dut ukatuko. Kulturagintzako gauzak kulturagintzari dagozkion irizpideen arabera ebaluatzearen aldekoa naizen aldetik, ordea, ez dut ulertzen nola izendatu duten museo titanioa “euskaldun unibertsal”.

Neure inozoan, uste nuen euskalduntasunean sakontzea zela unibertsal izateko bide bakarra. Antza denez, ordea, bada horretarako hori baino bide errentagarriagorik. Batzuentzat, behintzat. ■